

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1999ko otsailak 11 • 161. zka.

FELIS BELTRAN DE HEREDIA
ANDRA MARI 07 - 2 EZK
ARETXABALETA

Atxabaltako sagardoa

Kalitate ona eta zapore goxoa

Iturririk iturri: Anjel Bergaretxe ■ Iritzia: Asier Mujika ■ Kirolak: Hector Prieto

OPEL 





Garaje Talleres Norte, s.l. MARKA GUZTIEN KONPONKETAK
Zerbitzu ofiziala EGITEN DIRA

Basabe poligonoa A-13 • 20550 ARETXABALETA • Tfnoa: 943 79 62 65 / Faxe: 943 77 16 20

atxabaltarrok, ondo pasa

1999^{ko}

ARATUSTEAK



EGUZKIGRAF
inprimategia

Araba Ibilbidea - Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Tfnoa.: 943 79 18 44 - Faxe: 943 79 29 41




Sagardotegira joateko ohiturarik baduzu?

Emiliano Altube

(Jubilatua)

Bai, urtero joaten naiz. Ez naiz sagardo zalea, ardoa gehiago gustatzen zait baina bertara joan eta kupel artean sortzen den giroa atsegin dut.



Juxe Zuazua

(Langilea)

Ez, bizpahiru alditan egonda nago eta gehiago joatea gustatuko litzaidake baina inoiz ez naiz heltzen. Sagardoa bestela asko gustatzen zait.



Nerea García

(Langilea)

Joan izan naiz baina bakailaua eta txuleta ez zaizkit gustatzen eta jan gabe edan eta edan egitea... Beste era batetako bazkari-afariak egitea gurago dut.



Asier Altuna

(Langilea)

Ohiturarik ez dut baina noizbehinka joan izan naiz. Sagardoa gustatzen zait baina ez naiz sagardotegi zalea, urtean behin joanda nahikoa.



e s k u t i t z a



Eskerrik asko Chenalótik

Fan zan astien ailegau jakun Eskoriaztako San Pedrotan eta Atxabaltako San Migeletan ataratako diruaz Chiapasen ein zanan barri. Bagekixen zertan eta nun gastaiko zan diruoi: baine zuzena pentsau jaku atxabaltarri honen barri emutie, azken finien zueik izen zare dirue jarri dozuenak eta.

Jakina da, sikutie dala, inundazinuek die-la eta azkenengo urtietan Chiapaseko herri-kek jasandako zapalketie dala eta, aurtengua urte gogorra izan dala bertako indigenentzat.

Gu espezialmente Chenaló ingurukoekin arduratuta ginguzen. 139 Km² daukon Udalerri bat da Chenaló eta 61 komunidadek osaketan daue. 30.000 biztanle inguru dauko eta honeitatik % 43 indigenak, Tzoltzil eta Tzeltalak. 1997ko abenduan 45 indigena Tzoltzil hil zituzten inguru honeitan dauen

Actealen (gehixenak emakumak eta umiek). Gatazka edo konflito hau dala eta, 2500 bat lagun euren etxiek itxi eta noraezien dabitx, ez janik eta ez aterpeik, ezer ez daukiela.

Horretxeindako izen zan ba, txosnetan ataratako dirua. Chenalóko desplazauendako. 18 azukar saku, 39 arroz saku, 7 gatz saku, 10 olixo litro, jaboie, artue,... erosi eta banatu zien biherrik haundixena eukienean artien.

Euren partez, bariro be TOJOLAUAL, eskerrik asko.

CHIAPASEN ALDEKO EUSKAL PLATAFORMA



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Iruñe Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzailea:** Janete Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta



Herria hankaz gora kolektore lanak direla eta

Lehenengo ataleko ez gain bigarren ataleko lanak bost puntutan batera egin nahi dira

Lanok bukatzen direnean herria txukun geratuko da baina bitartean hainbat eragozpen eta buruhauste jasane beharko ditu herritarrak. ACS enpresa Loramendi aldean burutzen ari den lehenengo ataleko lanak aurrera doaz eta otsailaren 1etik Araba Ibilbideko bi autobus geltokiak zerbitzuz kanpo daude. Aretxabaletako hegoaldeko sarreratik sartuz gero bestalde, Portasol alderaino bakarrik joan daiteke. Mendiolako bidea hartu eta Copreci atzetik joateko aukera ere badago baina errepidea ez dago batere egoera onean.

Bost puntutan lanak batera

Lan hauez gain Altuna eta Uriak bigarren atalekoak ere hasita ditu Arbi Zelai parean. Orain ordea, poliki poliki eginez gero asko luzatuko direla lanak eta, herriko bost puntutan zabaldu nahi dira kaleak hodiak sartzeko. Momentuz Bedarreta


auzoko atzeko bidean (parke alboan) eta Errekabarren kaleko 16. zenbaki inguruan hasi dira eta hori dela eta astelehenerik kale honetako autobus geltokia ere zerbitzuz kanpo geratu da. Beraz autobus geltoki bakarra izango da herrian denboraldi batean, Beroakoa hain zuzen. Gernika plazan burutzen den astelehenerik azoka ere astelehenerik lekuz aldatua dago, Gipuzkoa plazan egingo da hemendik aurrera.


Durana kalea kotxeentzat

Errekabarren kalea kotxeentzat oso kale garrantzitsua denez eta hau itxi beharra dagoenez, momentuz, trafikoa arintzeko, Durana kalea egun osoz kotxeei zabaltzea pentsatu da. Bere norantza ordea, aldatu egin da eta elizatik gora Mitarte kalerara joango dira kotxeak lanok iraun bitartean. Aldaketok direla eta astelehen honetan zenbait arazo eta

gaizki ulertu izan baziren ere gidarien artean, aurrerantzean ahal den normaltasun osoz ibiliko direla uste da. Hirigintza saila eta trafikoaz arduratzen diren udaltzainak elkarlanean dabilta herritarrei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko, beraz, udaletxean hartutako erabaki eta aldaketen berriak puntualki jasoko dira.

- 1- Araba Ibilbidea:**
Loramendi kaleko bidegurutzetik Markoleko bidegurutzeraino itxita.
- 2- Errekabarren kalea:**
16. zenbaki parean moztuta.
Durana eta Mitarte kaleen norantza aldatu egin da, kotxeak eliza paretik Miartera eta handik Araba Ibilbidera.
- 3- Bedarreta auzoa:**
Datorren astean hasiko dira lanak eta zatika itxiko dira kaleak.
- 4- Arbi Zelai parean:**
Luzerako dute bertan.



 **Zenbaki**
Basabe
Industrialdea C Pab.
Aretxabaleta
Tfnoak: 943 71 21 12
943 71 22 68

Aholkularitza

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 943 79 02 24
ARETXABALETA

Hirugarren adinekoentzat hainbat proposamen

Aurtengo programek gustu eta posibilitate guztiak asetzeko aukera ematen dute

Urtearen hasierarekin batera hirugarren adinekoentzat pentsatutako programak atera dira. Gustu guztiak asetu nahian aukera eta posibilitate ezberdinez josita datoz aurtengo proposamenak:

Galizia-Xakobeo

Bost eguneko irteera izango da eta Pontebedra Xanxenxo herriko Carlos I hotelean izango dute lo lekua. Prezioa berriz 33.500 pta. da pertsonako; 60.000 pta. tik beherako diru sarrerak dituztenentzat, berriz, diru laguntzak egongo dira.

Bainuetxeak

Bainuetxeetara joatea nahiago

dutenentzat 11 eguneko egonaldiak antolatu dira. Errioxako Arnedillo, Nafarroako Fitero eta Zaragozako Seron-en artean aukeratu ahal izango da eta prezioak diru sarreraren arabera izango dira.

Tarteko 99

Castellon probintziako Alcoceber herrian, hiru izarretako hotelean, hilabete bat edo birako egonaldiak antolatu dira. Honen prezioa ere diru sarreraren arabera-

koa izango da.

Informazio gehiago jaso edo izena eman nahi izanez gero Udaltxeko Gizarte Ongizate departamentura jo daiteke.



Behin probatuz gero gehienek errepikatu nahi izaten dute

Kurtzebarri Eskolako proiektua ezagutzen hainbat ikastetxe

Aurten ere, Pedagogi Berrikuntzarako sailak antolatu eta tutorepeko heziketa programaren barruan,

Gasteizko Lopez de Gereñu, Umandi, Plaentxi Herri Eskola eta Etxabarriko J.M. Barandiaran ikastetxeak gure herriko eskola bisitatu eta ezagutzeko aukera izango dute.

Jardunaldi hauek otsailean zehar izango dira eta hasiera eman dion eskola Gasteizko Lopez de Gereñu izan da. Gasteiztarrak euskararen erabileraz eta kalitateaz kezkatuta zeuden eta beraiek diotenez "Aste honetan zehar eskola honetako hezkuntz proiektua ezagutzeaz gain, euskararen erabilera ikastetxe honetan haundia dela ikusi dugu eta eskolak planteatuta dituen helburuak ere ongi betetzen direla esan genezake".

Datozen asteetan zehar beste hiru ikastetxe izango dira ekimen honen jarriztaile, ea denen balorazioa hain baikorra den.



Gasteizko irakasle taldea lanean Kurtzebarri eskolan



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Jende ugari San Blas egunean

Aretxabaletako herritarrek otsailaren 3an Sailluenteko ermittara joateko ohitura handia daukate eta halaxe izan da aurten ere. Eguraldia lagun zutela herritarrez gain Almen eta Kurtzebarri eskoletako haurrak ere hurbildu ziren bertara. Meza ostean janarien bedeinkapena egin zuen Antonio parrokoak, San Blas gotzain santuak jaki horien bitartez eztarriak zain eta babes ditzan urte osoan.

Udal tasen bonifikazioak

Urtero bezala aurten ere Udal tasen hobari edo bonifikazioak aurrera eramango direla berri eman nahi du Udaletxeak.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- NAN-ren kopia
- Etxeko guztien dirusarrerren ziurtagiria edo/eta langabeziaren txartela

- Ondasunen aitortpena
- Kutxetako kartilak

Bonifikazioa jaso dezaketen gaiak:

- Lanen baimena
- Estolderia (alkantarila saila)
- Etxeetako ur hornikuntza
- Kultur eta kirol zerbitzuak
- Dokumentuen ematea

Egiaztapena:

Bonifikazioa tokatzen zaionari laguntzen egiaztapenaren frogagiria emango zaio, tasa edo zerga bakoitza ordaindu behar duenean aurkeztu beharko duelarik.

Aurkezpen tokia:
Laguntza hauek bideratzeko Aretxabaletako udaletxera jo beharko dute, Gizarte Laguntzailearen bulegora.

Epea:

Martxoaren 31a izango da eskaera hauek Udaletxean jasotzeko azken eguna.

Hezibideko informazioa

Hezibide elkarteko ikastolak, Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintza, azkenengo hiru urtetan taldean landu duten "Hezibideko Ikastolen Proiektu Berria", langile, guraso, kolaboratzaile eta ikasleei zertan den azaltzen ari dira pasa den abenduan hasi eta martxo bitartean. Bakoitza bere ikastolan ahalegin handia egiten ari da Kooperatiba osatzen duten agente guztiengana heldu, eta Proiektu

Berria hurbiletik ezagutu dezaten. Abenduan ekin zion ikastola bakoitzeko zuzendaritza taldeak langilegoari proiektu berriaren aurkezpena egiteari.

Ikastoletako Erretore Kontseiluek proiektu proposamena aztertu eta baloratu dute. Ondoren, nahiz eta ikastola bakoitzak bere modura egokitu duen prozesu guztia, irakasleak murgildu dira proiektu berriari sakontzen. Guraso eta kolaboratzaileendako ere bilera infor-

matibo ugari egin dira. Kezka eta zalantzak aztertu ondoren, Proiektu Berriari baiezkua edo ezezkoa emateko ikastola bakoitzak Asanblada Orokorrak egingo ditu laister. Bazkide guztiak gonbidatu nahi dira asanbladan parte hartzera, benetan erabaki handi baten aurrean daudelako. Horrez gain guraso nahiz kolaboratzaileak izan ditzaketen iradokizunak jasotzeko daude, Biteri Etorbidea 15eko bulegoan edo ikastola bakoitzean.

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

Tfnoa: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIK

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 943 79 82 44

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, ☎ 943 77 03 08

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tfnoa: 943 79 57 47
Aretxabaleta

Santa ageda mutilak baserri eta kaleko etxeetan eskean

Jai giroaz gain etxafleroek sortutako kalteak izan dira aurten ere protagonista

Hotz egiten zuen pasa den ostegunean baina santa ageda mutilak ez ziren horregatik beldurtu. Goizeko 6,30ak inguruan ekin zioten baserri baserri kantatzeari, batzuk Orora, besteak Azatzara. 10ak aldera matikuan elkartu eta bapo hamarretakoa egin ostean Korueta, Arientza, Arkarazo eta Almenera. Bazkalostean, berriz, Apotza-Etxebarri, Galartza eta Izurietara. Trikiti josatzaile lanetan zebiltzan neskek hatzamarrak gorri gorri eginda ziztuzten, ez dakigu eragindako lanagatik ala hotzagatik, baina umore ona eta irribarrea ez zitzairen falta.

Ostiralean kaleetan zehar

Hurrengo egunean, berriz, Santa Ageda eguna, herriko kaleei tokatu



Hotzari aurre egiteko kantua eta edaria

zitzairen santa ageda mutilen kantu eta etxafleroak entzutea. Arratsaldeko 7etan aurtengo lehenengo dantzak ikusi ahal izan ziren Herriko plazan eta egia esan ez zuten batere gaizki egin.

Igandean ere jai giroan ibili ziren eta arratsaldean dantzen beste erakustaldi bat eman zutelarik. Jadanik aratuste igandea besterik ez zaie geratzen parranda egin eta ondo pasatzeko. Beraiei segituan pasa direla egunak iruditu arren beste batzuei luze egingo zitzairen, beraien etxekoei esaterako.

Etxafleroek sortutako kalteak

Ez da ordea, dena jai giroa izan, sarritan ez baita jakiten jaia eta ganberrokeria bereizten. Azken urteetan badirudi zeinek etxaflero gehiago bota eta zarata haundiagoa atera lehiaketa dagoela. Horrek, ordea, jendearen hasarrez gain diru kostua dakar Udaletxearentzat eta azken finean herritarrentzat.

Etxafleroek sortutako kalteei astebukaeran hainbat kaleetako etxebizitza eta eraikuntzetan egindako "pintada"k gehitu behar zaizkie. Udaletxeak kalteon kontaketa egin ostean gutxi gora beherako diru



Herriko etxe guztietatik pasatzeko astirik ez zuten izan

kostua kalkulatu du.

Etxafleroek sortutako kalteak

- Komun publikoak:
 - komuna 25.000 pta.
 - atek 30.000 pta.
- Industrialdea:
 - zabor kontenedorea 75.000 pta.
- Zakarrentziak:
 - 25 zakarrentzi 300.000 pta.
 - Guztira 430.000 pta.

Pintadek sortutako kalteak:

Pintadak agertu diren tokiak:

- Iturrigorri frontoia
 - Kurtzebarri eskola
 - Belorrieta auzoa
 - Kiroletxea
 - Loramendi kalea
 - Andramari auzunea
 - Beroa lantegia
 - Ibarberri auzoa
- Guztira 770 m².
Diru kostua 462.000 pta.

Aretxabaletako Udalaren komunikatua

Berrero ere jai ekintza batzuen ospakizunak herritarren haserrea sortarazi du eta herritar guztion artean ordaindu beharko ditugu ondasun publikoak jasan dituen kalteak.

Gure herritarrentzat hainbeste esanahi eta tradizioa duen Santa Ageda mutilen ospakizunetako jai eta dibertsio giroa ulertzen

eta bultzatzen dugu, baina ez dugu ulertzen honelako jaia, berau bultzatzen duten herritarren aurkako eraso bihurtzea.

Guzti honegatik, honelako ekintzak burutzea erabaki dutenei horretaz hausnartu dezatela eskatzen diegu eta bide horretatik jarraitzeari uko egin diezaiotela.

Aretxabaletako Gobernu Batzordea

Aratuste domekarako mozorroak prest!

Kotxeak pasatzeko bide bakarra Santa Kurtz kalea izango da

Mozorroak prest ez dituztenei oraindik eguntxo batzuk geratzen zaizkie beraien jantziak prestatzeko. Aurtengo aratuste domekako programa iazkoaren antzekoa izango da, jai giroa, ordea, txarangak, santa ageda mutilek, txino dantza egiten dutenek eta mozorrotutako jendeak jarriko du. Eguraldiak laguntzen badu behintzat jende ugari izango da herriko kaleetan.

Kotxe guztiak Santa Kurtz kalera

Aurten, ordea, kolektore lanak direla eta Errekabarren kalea itxi beharra tokatu da kotxeentzat. Horren ondorioz Durana kalea, bere ohiko kontrako zentzuan, hau da, Arrasatetik Eskoriatzarako zentzuan, zabalik mantendu beharko da nahiz astegun nahiz jaiegun izan. Aratuste domekan, ordea, sor daitzkeen arazo eta istiluak kontutan

izan dituzte Udaletxean eta egun honetan trafiko guztia Santa Kurtz kaletik bideratzea erabaki dute, bai gora eta bai beheerako zentzuetan. Bertan ere ez da buruhausterik faltako kale ertzean kotxe ugari egoten baita aparkatuta baina ahalegin guztiak egingo dira arazo larriarik sortu gabe jaiatzeko aukera egon dadin.

Elkarriko txozna eta tarta salmenta

Aurten Elkarri taldeak Durana kalean (San Migeletan taloak egiten diren lekuan) txozna jarriko du. Bere helburua Elkarrik dituen zorrak arintzeko dirua biltzea da eta bertan edariez gain mota guztietako pintxo eta bokatak salduko dira.

Almen ikastetxeko ikas-

leek, berriz, urtero bezala tarta salmenta egingo dute. Beraien helburua urte bukaeran egiten den bidaia-rako dirua biltzea izango da.



Ez da faltako mozorro orijinalik domekan

Egitaraua

Otsailak 14, domeka

- 10:00 Txistulariekin diana
- 12:00 "Gazteleku" txarangaren etorrera eta ondoren kuadrilen desfilea.
- 13:00 Aurtengo santa ageda neska-mutilen eskutik "Txino dantza"
- 19:00 Santa ageda mutilek plazan dantzan egingo dute.
- Jarraian aurtengo mozorro lehiaketaren sari banaketa.
- 22:30 Afal ostean "Gazteleku" txarangak giroa berotzen jarraituko du.

Otsailak 16, martizena

- 15:00 "Incansables" txarangaren etorrera.
- 16:30 "Hortzmuga" antzerki taldearen HORTZ-TAURUS antzezlanaren ikusgai Herriko plazan.
- 18:30 Txarangarekin batera buruhaundiak.
- 22:30 Txinoaren hileta, Mitarte kaletik Herriko plazaraino komitiban. Bertan lutoz jantzita eta kandelak eramatea gomendatzen da.

ESKORIATZA
Bazkari eta afariak
ERRETEGIA
MENDIOLA
Astelehenetan itxita
ESKORIATZA
Tfno 714 345

IRIARTE
Umeen denda
Durana, 8 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 10 96

Okindegia - Gozategia
Aretxabaleta
Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina



Denok balio dugu kirolerako

“Gehienontzat gure bizitza kalitatea hobetzeko bitarteko bat izan beharko luke kirolak”

Aurreko batean Hingins tenislari suitzarrari entzun nion bost urterekin hasi zela tenisean jolasten, Julian Retegiri ere irakurri nion zazpi urterekin hasi zela lehenengoz pilotan, eta Ronaldo ere oso txikitatik aritu omen da futboleko brasilgo kaleetan. Horrelakoak entzun edo irakurri ondoren, eta gaur egungo gizartean goi mailako kirolariak duen ospea eta sarrera ekonomikoak ikusirik, ulergarria da guraso askok beraien seme-alabak goi mailako kirolariak izatea nahi eta kirol bakar batetan ahalik eta gazteen hastea komeni dela pentsatu eta defenditzea. Are eta ulergarriagoa kontuan izanda helduok izan nahi genukeena eta izaterik lortu ez duguna gure seme-alabentzat nahi izaten dugula sarriegi.

Baina zenbat dira goi mailako kirolera iristea lortzen dutenak? Edo beste modu batera galdetuz; zenbat dira horra gora heltzeko asmoarekin abiatu eta bide bazterean “botata” gelditzen direnak?

Batzuetan, “honek ez du kirolerako balio!” entzun behar izaten da gainera, eta askotan txarrago oraindik norberak sinistu egiten du “egia duk, nik ez diat kirolerako balio”.

Honen aurrean aldarrikatu nahi dut, ozenki, okerreko jarrera baten aurrean aurkitzen garela. “Denok balio dugu kirolerako!!!”. Kirola goi errendimendua baino zerbait gehiago da, kirola askoz gehiago da. Gutxi batzuentzat famatu eta aberats bihurtzeko bitarteko bat izan badaiteke ere, gehienontzat gure bizitza kalitatea hobetzeko bitarteko bat izan beharko luke kirolak.

Kirolak bere baitan dituen baloreen azalpenean murgiltzeak luzeegi joko lukeenez, guztiak multzokatu eta laburtuko nuke esanez kirola norbere gorputza eta izakera garatzeko baliogarri izateaz gain gizarte bizitzara prestatzen ere laguntza handia eskaini dezakela, beti ere zuzeneko jarrera eta joera bat mantenduz gero, noski.

Asier Mujika

M
MEMESA
Industri hornidurak
Tfnoa: 943 71 24 11
ARETXABALETA

IZOTZ
Taberna
Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65
Aretxabaleta

SUNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 943 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

PAGALDAI
Opari denda
Durana, 33 ☎ 943 79 10 14
ARETXABALETA

Anjel Bergaretxe

HBko zinegotzia

37 urte ditu eta hiru urteko alaba du. Copreci-ko langilea ezetik zinegotzia ere bada.

Orain lau urte HB partidutik alkatetzarako aurkeztu eta berau lortu arren, partiduen arteko elkarketak medio azkenean ezin izan zuen kargua hartu. Lau urte ostean legealdi honi buruzko iritzia eman digu.

- Zein izan da zure lana Udaletxean?

- Utzi bitartean euskara batzordeburua izan naiz eta horrekin batera hizkuntz normalkuntza eta hezkuntza jasotzen dituen alorraren arduraduna.

- Zein betebeharrak ditu zinegotziak?

- Herriak zer behar dituen jakitea eta horretarako herritarrekin harreman zuzena izatea oso garrantzitsua dela iruditzen zait. Ondoren, ahal den neurrian, behar edo premia horiek betetzen ahalegindu behar da.

- Nola baloratuko zenituzke lau urte hauek?

- Hiru atal ezberdin egingo nituzke. Lehenengoa, hauteskunde ostean alkatetza lapurtu zigutenetik udaletxea osatu artekoa izango litzateke, tentsio handiz bizitakoa. Bigarrena, gobernu batzordetik bota gintuzten artekoa, tarte honetan bakoitzak bere ideiak defenditu genituen baina harreman onak nagusi izanik eta desadostasunak elkarrizketa bidez konponduaz. Azkenik, hirugarrena, 97ko azaroan bota ostetik gaur artekoa. Harremanak ez dira txartu baina bai gutxitu eta pertsonalki frustrantea izan da, gauzak egiteko gogoia izan eta uzten ez dizutenean ilusioa galtzen baita.



“Ez dugu lortu herria udaletxera hurbiltzea”

- Egin nahi zenuen zerbait egin gabe geratu al zaizu?

- Bai, ez dugu lortu herria udaletxera hurbiltzea eta hori niretzat ezinbestekoa da gestio on bat egiteko. Honen erru zati bat guk izango genuen eta bestea herritarrek, beraien gogo edo gogo faltak.

- Momentu honetako egoera politikoa ikusita, hurrengo hauteskundeetan zer aterako dela uste duzu?

- Nik behintzat hauteskundeetan aterako diren emaitzak errespetatuko direla espero dut. Aurrekoan egondako pakatu arrarorik eta gu baztertzeko ahaleginik ez dela egongo uste dut, azken batean horrelako herri txiki batean denok parte hartu behar baitugu gobernuan. Orain hasi den Udal ordezkarien biltzararekin, udalak berak protagonismo handiagoa har dezake prozesu orokorrean.

- Udaletxean politika egin da edo herriaren interesak egon dira lehenengo?

- Denetik egon da. Legealdi honetan alderdien interesei lehentasuna eman zaiela uste dut. Horren adibide dira alkatetaren izendapena eta gobernu batzordetik gu bota izana,

nahiz eta herriarentzat ez izan erabaki egokienak. Bestela orokorrean, herriaren interesak defendatu izan dira.

- Hurrengo legealdirako aurkezteko asmorik baduzu?

- HBko asanbladak ni berriz aurkeztea egokia dela ikusi eta proposatuz gero pentsatu egin beharko nuke. Nire gogoz ez nintzateke aurkeztuko, nire bokazioa ez baita politikatik bizitzea baina orain urte batzuk herri honen alde zerbait egin nezakeela pentsatu eta geroztik hemen nabil. Proposatuz gero pentsatu egin beharko nuke.

- HB alkatetzan egon izan baltiz gauzak beste era batetakoak izango ziratekeen?

- Gauza batzuetan nabaritutako zen, noski. Beste batzuetan ez hainbeste, orain ere gure iritzia kontuan hartu da eta orduan ere horrelaxe egingo zen besteenaz. Orokorrean erabaki haundietan ez zen hainbeste nabaritutako baina bai beste hainbatetan.

Sagardoa, modako edaria

Sagardotegi garaiari hasiera eman zaio eta apirila bitartean jende ugari joango da Astigarra-ga edo Hernani aldera sagardoz bustitako afari goxoak egitera. Gure inguruan ere sagardotegi izeneko merenderu edo jatetxe ugari egon arren, leku gutxitan egiten da sagardoa.

Urruti joan gabe, Oro auzoan hain zuzen, gaur egun Aretxabaletan sagardoa egiten den leku bakarrenetakoa dago. Ez zaie hurbildu jakitunik bizia ala motela den esateko, baina etxekoek gustora edaten dute beraien eskuz egindako edaria.

Badira urte batzuk Astigarra-ga aldean dauden sagardotegietara joateko ohitura dagoena gure artean. Urtarrilean txotx-arekin hasiera eman eta apirila inguruan ematen zaio bukaera sagardotegi garaiari. Bitarte horretan ia astebukaera guztietan joango da norbait gure herritik sagardoz bustiriko afari goxoak egitera. Sagardoak erakartzen al du jendea ala kupel artean sortzen den giroa ote da?

SAGARRAK EUSKAL HERRIAN

Euskal Herriko historia sagardoari oso lotua dago nahiz eta garai batzutan ekoizpen handia izan eta beste batzutan askoz txikiagoa. Herri bakoitzeko klima eta orografia-
ren arabera sagarrak mota ezberdi-
netakoak izaten dira, beraz, sagar-
doak ere ez da berdina. Honi gaine-

ra bakoitzak ekoizteko duen ohitu-
ra eta sistema berezia gehitu behar
zaizkio.

HEMENGO SAGARDOA

Garai batean Aretxabaleto
baserri askotan egin ohi zen sgar-
doak, Larrinuko Iturrospen, Elizga-
rain, Apotza-Etxebarriko bat baino
gehiagotan ... Baserri gehienek
zuten bere sagastia eta sagarron-
doek emandako sagarrak aprobe-
txatzeko modu bat izanik, etxerako
edaria ateratzen zuten. Gaur egun,
ordea, sagardoa egiteko tresneria
gehiena desagertuta dago eta base-
rri bakarren batzutan besterik ez da
jarraitzen lanbide zahar honekin.

Geronimo Olaziregik, Oroko

Iturralde baserriko nagusiak, ba-
tzutan gehiago eta beste batzutan
gutxiago, baina urtero egiten du
bere senitarteko Tomas Lasagabas-
ter, Joxe Martin Larrinaga eta Jose
Ramon Aranzabalen laguntzaz.
Gaur egun duten tresneria Eskoria-
tzan egon ziren marianista erlijio-
soei erosi zien eta oraindik horre-
txekin moldatzen dira.

SAGAR MOTA EZBERDINAK

Baserriaren azpikaldean koka-
tutako sagarrondoetatik jasotzen
dituzte fruituak eta bertakoekin
moldatzen dira, kanpoan erosi ga-
be; 65 bat saku bete zituzten aurten
jasotakoekin. Geronimoren esane-
tan sagar mota ezberdinak nahasian



Iturralde baserriko sagastian 65 saku bete dituzte sagarrez aurten

daude bertan: sagardo sagarra, goldena, ... eta sagardoa ere hobea ateratzen da mota bakarra erabilita baino. Sagarrak zenbat eta mingotsagoak eta latzagoak izan jateko, orduan eta hobek sagardoa egiteko, goldena, esaterako, ez da oso egokia egun batzutan ganbaran edukiz gero bigundu egiten baita.

Sagarrondoek, ordea, urtero ez dute sagar kopuru berbera ematen, bi urtetik behin izaten da ganorazko kopurua, 1000 litrotik gora egiteko bestekoa, eta aurten izan da horietako bat.

TRESNERIA

Gaur egun hiru tresna dituzte, matxakadorea, sagarrak txikitze-ko, prentsa, sagarrak estutu eta ura ateratzeko eta enkortxadorea, sagardoa botiletan sartu eta kortxoak jartzeko. "Garai batean eskuz txikitzen genituen sagarrak, baita garia joteko motorraz ere, baina aspaldiko urteetan hiru tresna hauek ditugu" Geronimok kontatu bezala tresnok Eskoriatzako marianistek utzitakoan erosi zituzten, orain 40 bat urte. "Laupabosten artean erosi genituen: Osinaga, Basabe, Simonena, Arbulo eta ni neu izango gara bazkide. Gaur egun, ordea, ez dugu denok egiten; Osinaga, Simonena eta gu izango gara hortan gabiltzanak".

enean, sagar ura ateratzen da. "Hau lehenengo prentsaldia da, baina beste bat ere egiten da. Estututako sagar guztiak ondo harrotu eta 12 bat ordura berriz errepikatzen dugu prozesua ur piska bat gehituta" nahiz eta hau Geronimok esan bezala eskastxoagoa atera.

PROZESUA

Hortik ateratako ura fermentatu ostean, sagardo bihurtuko da. Fermentatzeko kupeletan sartzen da eta hilabete inguru egoten da bertan zikinkeria guztia bota arte. "Kupelak ondo itxi behar dira airerik har ez dezaten, fermentazioan irakin egiten baitu sagardoak eta ku-

pelek lehertzeko arriskua dutelako" dio Jose Ramonek. "Hasierako sagar urak 5-6 gradu izaten ditu eta kupeletan fermentatzen egon ostean, jeitsi egiten dira gradu hauek. Botiletan sartzeko gradu bat izan behar du bestela kortxoak bota egiten du, txanpaina bezalakoa delako". Gradu bat lortu duenean, apartatu bidez ondo neurtuta, ilbeherari itxaroten zaio botiletan sartzeko.

pelek lehertzeko arriskua dutelako" dio Jose Ramonek. "Hasierako sagar urak 5-6 gradu izaten ditu eta kupeletan fermentatzen egon ostean, jeitsi egiten dira gradu hauek. Botiletan sartzeko gradu bat izan behar du bestela kortxoak bota egiten du, txanpaina bezalakoa delako". Gradu bat lortu duenean, apartatu bidez ondo neurtuta, ilbeherari itxaroten zaio botiletan sartzeko.




Sagardoa egiteko baserrian dituen txoko ezkutu guztiak erakutsi nahi izan zituen Geronimok


pelek lehertzeko arriskua dutelako" dio Jose Ramonek. "Hasierako sagar urak 5-6 gradu izaten ditu eta kupeletan fermentatzen egon ostean, jeitsi egiten dira gradu hauek. Botiletan sartzeko gradu bat izan behar du bestela kortxoak bota egiten du, txanpaina bezalakoa delako". Gradu bat lortu duenean, apartatu bidez ondo neurtuta, ilbeherari itxaroten zaio botiletan sartzeko.

SEKRETUA

Oroko sagardogile hauek sagardo ona ateratzeko sekretua badaguela diote. Hasieran lurtean egoten diren sagarrak batzen dira, baina hauek ondo heldu gabe jausitakoak direnez, gustua ezberdina izaten dute. Hauek erabili gabe, zuhaitzean dauden sagarrak bakarrik erabiliz gero, sagardo hobea aterako litzateke, baina denak jasoteko ohitura dute, bestela Geronimok dioenez "zer egingo dugu bada sagar hauekin?"



“Ondo garbituta ere ez dago zereginik behin gustu txarra eman ez gero, kupel hortako sagardoa beti eskaxa aterako da”



KUPELEN GORABEHERAK

Gela txiki eta ilun batean gorde-ta tamaina ezberdinetako kupelak dituzte, haundiena 600 bat litrokoa izango da eta besteak 250ekoak. Kupel batetik bestera alde handia dago, ez bakarrik tamainan, sagardoari ematen dion zaporean batez

ere. “Aurten kendu dugun kupel batek beti zapore txarra eman dio sagardoari, egurratik zen, egurrak ematen baitio gustua. Ondo garbituta ere ez dago zereginik behin gustu txarra eman ez gero, kupel hortakoa beti eskaxa aterako da. Guk ez daukagu kupel berririk

eta hori hain zuzen aurretik ardoz erabilitakoa zen, beraz, hori egon daiteke arrazoa. Besteak Oñatiko Txopekua baseritik ekarritakoa dira, lehen sagardoa egiten baitzuten han ere”.

Kupelak ondo zainduz gero, urte askotan erabil daitezke, baina zaindu egin behar. Erabili ostean ondo garbitu eta hutsik uzten dira, bi urte baino gehiagoan hutsik edukiz gero, ordea, nasaitu egin daitezke eta kontuz ibili behar da, nasaituta ez baitute balio.

ETXERAKO SAGARDOA

Aurten 65 sagar sakukadaz 2.400

txanpain botila bete dituzte sagardoz. Guztiak etxerako eta lagunei banatzeko geratuko dira. Noiz-pait Matikuara saldu izan zuten, baina jendea kexatu egin omen zen, ez zala jende aurrean ateratzeko itxura eta, geroztik saltzerik ez dute pentsatu ere egin. “Lagunei atera diedanean ez dira inoiz zaporeaz kexatu, sagardo askok baino gustu haundiagoa duela esan didate gainera, beraz edateko modukoa behintzat egiten dugu” dio Jose Ramonek.

Geronimoren esanetan lanbide honek lan handia ez badauka ere, sagarrondoak zaindu, sagarrak batu, sagardoa egin, botilak txukundu eta beste hainbat lan txikiren beharra du, beraz, zaila izango da bertan jarraituko duenik aurkitzea. Sagar-dotegietara inoiz baino jende gehiago joaten den eta sagardoa modan dagoen garai honetan, gure herrian desagertzekotan egon daiteke lanbide bitxi hau. Argi dago nekazaritzako beste hainbat alorretan bezala oso zaila dela sagarrek emandakotik bakarrik bizitzea.

Zaila da zehatz-mehatz sagardoa noiz sortu zen esatea, iritzi eta argudio ezberdinak baitaude, baina Kristo aurreko urteetan izan zela esanda ez ginateke oso oker ibiliko. Euskal Herriko historiari ere oso lotua dago, VII. mendeko aipamen batzutan jadanik agertzen baita. Benetan edari garrantzitsua, ordea, Asturiasen izan da, bai produkzio mailan baita edateko orduan ere.

Sagardoaren historia, muga hauetatik harantzago, beste herrialde batzutarara ere luzatzen da, atlantiar kostaldeko herrialdeetara hain zuzen, Frantzia, Ingalaterra, Belgika eta Irlandara. Hauen artean Frantzia da gaur egun europa mailan sagardo ekoizlerik garrantzitsuena.

Herri bakoitzeko klima eta orografiak sagar klase ezberdinak ematen ditu eta erabiltzen diren sagarren arabera sagardoa gozoagoa, mingotsagoa, argiagoa edo ilunagoa aterako da. Egile bakoitzak bere gustoko proportziotan nahasten ditu sagarrok, horregatik herri bakoitzean sagardoa ezberdina izaten da. Orokorrean, ordea, %50 sagar garratz, %30 mingots eta %20 gozo erabiltzea, proportzio egokitzak hartzen da.

Azkenean sagardo berberari gustu ezberdina hartzen dio bakoitzak bere ahoan eta batentzat bizia dena bestearentzat motela izaten da, beraz, batek edo besteak, on egin diezazuela gustioi.



Errasti anaiak Gipuzkoako eskuz binakako pilota txapelketa irabazi zuten

Errasti anaiak Gipuzkoako pilota txapelketan irabazle

Unai Errasti astebeterako San Frantziskora joango da pilota erakusketa bat egitera

Unai eta Ibon Errastik Gipuzkoako eskuz binakako pilota txapelketan garaipena lortu zuten pasa den zapatuan Zumarragan. Bi anaiak senior kategorian jokatu zuten eta partidu gogor baten ondoren, 22-15 nagusitu ziren, Elgetako Aitor Ubera eta Eskoriatzako Unai Iñurrategiren aurka.

Garaipen berri honekin Errasti anaiak txapelketa hau irabazi duten hirugarren aldia da. Aurreko garaipenak 92an junior kategorian eta 95ean seniorretan eskuratu zituzten. Zorionak bikote!

Baina hau ez da Errasti anaien

aurtengo erronka bakarra, beste hiru txapelketetan burubelari baitabilta: Deba Arroa, Euskadiko txapelketa eta Open Vitoria. Gainera, orain artean emaitza onak lortu dituzte eta bi anaiak itxaronpentsu daude.

San Frantziskora astebeterako

Datozen egunetan Unai Errasti San Frantziskora, Ameriketa aldera, joango da pilota erakusketa bat egitera. Astebete egongo da bertan eta Muruamendiaraz, Idiakez eta Iñurrategi anaiekin batera bi pilota partidu jokatu dituzte erakusketa gisa.

Joseba Aranari zilarrezko insignia

Joseba Aranak, UDAko jokalaria ohiak, zilarrezko insignia jaso zuen joan den urtarrilaren 31n Ibarra futbol zelaietan. Bixente Etxeandia, UDAko lehendakariaren eskutik jaso zuen insignia, ondoren, berak egin zuen UDA-Bergara partiduko ohorezko sarea. Ekitaldiaz ondo amaitzeko, gainera, etxeokak 6-2ko emaitza nagusitu ziren bergararren aurka. Josebak iazko denboraldian utzi zuen futbola, UDAn 10 urte egin ondoren. Urte guzti hauetan egindako lanaren erakusgarri izan zen jaso zuen saria.

Joseba Larrinaga seigarren Munduko kross txapelketan

Pasa den asteburuan Algarven (Portugal) ospatu zen munduko kross txapelketan seigarren postua eskuratu zuen Joseba Larrinagak. Munduko kross txapelketako lehen edizio honetan 120 partehartzaile izan dira Algarven, eta erakutsitako maila altua izan da. Josebak aitortu digunez, emaitza hobea lortzea espero zuen baina lasterketan ez zen batere gustora aritu, eta gainera, lasterketa luzeagoetara ohituta dago. Bere hurrengo helburua bost milako pistetan entrenatu eta denbora hobetzea da.

Arlutz A preferente mailatik Liga Vascara

Arlutz A xake taldeak Preferente mailan lehen postua lortu ondoren, Liga Vascara igotzea lortu du. Igoera hau salto handia eta garrantzitsua da herriko xake taldearentzat, eta gainera, Aretxabaleta moduko herri bantentzat maila handia dela dio Aitor Alcaide taldekideak. "Era berean, kontuan izan behar da maila honen gainetik Estatuko txapelketa bakarrik dagoela, beraz, maila oso

altua da".

Mantentzea helburu

Arlutz xake taldeak kategoria hau eskuratzen duen lehen aldia da, eta zeresanik ez, taldekideak oso pozik ditugu lortutako emaitzaz, ez da gutxiagorako eta. Dena dela, Liga Vascan maila altua dago eta talde indartsuen aurka jokatu beharko dutela jakin badakite. Hori kontuan izanik, datorren denboraldirako lortutako

mailan mantentzea izango da beraien helburua.

Arlutz B igoera fasera

Aurten sortu eta jokatzen hasi den Arlutz B xake taldeak, hirugarren mailako bostgarren postua eskuratu ondoren, bigarren mailara igoera jokatu du datozen asteetan. Beren lehen urtea dute aurtengoa, beraz, lortutako emaitza txalotzekoa da.

Hector Prieto

Boccia eta Slalom-ean trebatuz

Hamabost urte dituen Hector aulki elektrikoan ibiltzen da, baina horrek ez du kirola egitera mugatu. Azken hiru urtetan gure artean ezezagunak diren boccia eta slalom kirolak praktikatzeko aukera izan du, eta hilaren 17an boccia modalitatean txapelketa batera aurkeztuko da Gasteizen.

Lehenengo aldia izango denez, ilusio eta gogo haundiz dago.

• Zein da txapelketa honetarako helburua?

Aurtengoa txapelketetan parte hartzen dudana lehen aldia denez, ahalik eta ondoen jokatzea da nire helburua. Garrantzitsuena parte hartzea izango da, galtzekorik ez baitaukat. Gero ikusiko dut zein aukera dauden. Lehenengo ligatxo bat jokatuko dugu, eta hortik batzuk finalerako klasifikatuko dira. Finala jokatzen dutenetatik, berriz, batzuk Espainiako txapelketarako sailkatuko dira.

• Zertan datza boccia eta slalom-ak?

Boccia petankaren antzekoa da. Hamairu bola daude, sei gorri, sei urdin eta txuri bat. Bola txuria bota ondoren, honi, ahalik eta bola gorri eta urdin gehien hurbiltzean datza. Banaka, binaka edo taldeka jolas daiteke.

Slalom-ean zirkuito batean zehar kono batzuk daude eta horiek saihestuz itzuli bat egin behar da. Denbora gutxien egiten duenak irabazten du.

• Noiztik praktikatzen dituzu?

Kurtzebarri eskolari esker bi modalitate hauek praktikatzeko



“Kirola praktikatzeak aldaketa haundia suposatu du nire bizitzan”

aukera eskaini zidaten orain hiru bat urte. Gimnasiako klaseetan nire gelakideek bestelako kirolak egiten zituzten bitartean, ni boccia eta slalom-a egiten hasi nintzen. Horretan laguntzaile bat eta PAT, Pedagogi Aholkularitza Taldeko kide bat aritzen dira.

• Zenbat entrenatzen duzu astean?

Normalean gimnasiako orduetan entrenatzen dut, astean behin bi ordu. Ostiraletan Bergaran ere entrena dezaket baina nola joan ez

daukadanez, noizbehinka bakarrik joaten naiz.

• Zure bizitzak asko aldatu du kirol hauek egiten hasi zarenetik?

Bai, asko. Lehen nire lagunak futboleko nola jolasten zuten begiratu behar izaten nuen. Orain nik ere kirol bat praktika dezaket eta neuk ere badaukat besteei zer kontatu. Horretaz gain, aulki elektrikoetan dauden edo beste ezintasun mota bat duten lagunak ere ezagutzeko aukera daukat. Gainera, astebukaeretan neska-mutiko gazteei kirol hauek erakustera joaten gara. Horrela, gero eta kirol ezagunagoak bihurtzen ari dira. Oso esperientzia aberasgarria da.

• Bi modalitateetatik zein duzu gustokoen?

Ez dakit, agian slalom-a politagoa da, baina konpetizioetan partehartzeko aukera boccia modalitatean bakarrik daukat. Boccian federatuta nago baina slalom-a elbarritasun fisikoa daukagunontzat ez da zabaldu. Oraindik, garunparalisia dutenentzako txapelketak bakarrik antolatzen dira.

• Hemen inguruan non praktika daitezke modalitate hauek?

Bergaran elkarte bat dago, Club Dordoka eta bertan entrena daiteke. Bailarako jendea bertara joaten da entrenatzera. Ni noizbehinka bakarrik joaten naiz, nola joan ez daukat eta, dena dela, ondo etortzen da bertan entrenatzea.

• Elbarritasun bat izanez gero aukera haundia dago kirola praktikatzeko?

Bai, telebistan horrenbeste ikusten ez diren arren, badira batzuk, saskibaloia, korrika... esaterako.

Kukumarrokeriak

Gerra aurreko aratusteen lotsagabekeria eta barrea nagusi izaten ziren

Gaur egungo aratusteak oraindik berriak dira, asko jota ere, 20 urte inguru izango dituzte. Frankok gerra ostean debekatu eta urte askoan ez zen ezer ospatu (Tolosan izan ezik). Gerra etorri aurretik, ordea, baziren aratusteak, ez gaur bezalakoak, baina bai arropa zaharrak jantzi eta barre eragitea helburu zutenak.

“Kukumarro dator, kukumarro dator, ... zenbat aldiz jolastuko ote genuen gerra aurretik bizitako neska-mutikook”. Zein zen ordea kukumarro? “Izan, izan, ... inor ez, mozorrotzerakoan bihurtzen ginen pertsonaia besterik ez” dio Antonio Altubek.

ARATUSTEA, BETIKO FESTA

Aratusteak ospatu edo gogoan izan behintzat betidanik egin dira, Garizumako otoitz, haragi-uzte eta barau egunen aurreko azken festak baitziren.

“Aitari txaketa zaharra eskatu eta amari soinekoa kenduta jazten zen jendea orduan. Zenbat eta okerrago hobeto; beldurra eta barrea nahasten ziren garai hartako aratusteetan eta”. Duni Zua-zabeitia neskatala zela gerra

heldu bazen ere gogoan ditu aurretik egiten zen festaren hainbat xehetasun. “Aretxabaletan betidanik ospatu izan da txino dantza aratusteetan, nik, behintzat, ondo barruan sartuta daukat. Aurpegia beltzez margotzea bakarrik izugarrizko ekintza zen eta horrela lotsagabekeria eta barre eragin nahia batzen ziren egun hortan”.

GERRA OSTEAN DEBEKUA

Gerra iritsiaz bat festa ahaztu egin zen, hobeto esanda ospatzeko aukerarik ere ez zegoen. Gerra ostean, berriz, Franco-ren aginduz

debekatu eta urte askoan isilean pasatu zen aratuste domeka. Arrazoa ez dago oso argi baina badirudi, gerra osteko garai latz hartan, euskaldunen aurkako jarraipen eta zigorrak nagusi ziren garai hartan, mozorroturik Franco-ren aldekoen kontrako ekintzak burutzeko beldurra zegoela.

“Tolosan bai, Tolosan gero ere ospatzen jarraitu zuten, hori bai izena aldatuta. “Fiestas de primavera” norbaiti bururatu eta festa galanta egiten zuten, zezenak eta guzti izaten ziren bertan”. Antonioren esanetan Tolosako aratusteak garai hartarako izugarrizko festak izaten ziren.

Duniren hitzetan gaur egungo aratusteek ez dute inolako zerikusirik ordukoekin. “Orain nor jantzi dotoreago lehiaketak egiten dira eta ez da itxura txarreko mozorro bat ere ikusten. Jendeak, gainera, dirutza haundia gastatzen du; ez, ez dauka ordukoarekin zerikusi haundirik.”

Gazte askok aratuste ostean hausterre-eguna eta garizuma datozenik jakin ere ez du egingo, ezta horrek zer esan nahi duen ere. Beraz, ez dago zalan-tzaririk, beste alor askotan bezala, hemen ere garaiak aldatuaz doazela.



Aitaren txaketa eta amaren soinekoa nahikoa ziren mozorrotzeko

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 943 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S.
COOP.

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 943 79 01 28



**BAZTER-ALDE
JATETXEA**

Galartza auzoa Tfnoa: 943 79 24 58 ARETXABALETA



Dendarien aratusteak

so zaila da aratusteen inguruko argazki zaharrak aurkitzea, gure herrian oso berandu hasi zelako jai hau ospatzen. Hasi zenean, ordea, ez zen umeetara mugatu, ez horixe eta horren erakusgarri da 80. hamarkada hasierako argazki hau. Aratuste astearte arratsaldean herriko dendariak elkartu eta mozorrotuta ateratzeko ohitura hartu zuten, beraiek ere festa ospatu nahian.

Goitik hasita, zutirik daudenak: **Luis Mari Zabalo**, **Jesus Garai** (Anduaga drogeriako), **Fernando** (telebistak konpontzera Gasteiztik etortzen zena), **Alvaro Zubillaga** (Gurea tabernakoa), **Arbulo** (Arbulo harategikoa), **Alejandro Urrutia** (Gipuzkoano bankuko langilea), **Felix Pagaldai** (Pagaldai pentsu dendakoa). Makurtuta: **Asensio** (Asensio jantzi dendakoa), **Jose Garai** (Jesus Garairen anaia, Arrasaten estankua zuena).

Argazkia eta informazioa: Jon Kepa Zubillaga

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 943 79 98 74
ARETXABALETA



MAPFRE Aseguroak

Errekabarren, 3
Tfnoa: 943 77 11 76

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

Jose Mari bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
Aretxabaleta

LANA

◆ 2. DBH arteko ikasleei **klase partikularrak** emango nizkieke. Interesatuak 943 79 25 62 telefono zenbakira deitu (Arantzazu).

◆ Esperientziadun neska bat **ileapaindegian lan** egiteko prest. Tfnoa: 943 79 72 77

◆ Matematika, fisika, kimika eta marrazketako **klaseak ematen** dira Arrasateko San Andres auzoan. Tfnoa: 943 77 08 02

◆ Aretxabaletan 2. LOGSEko (giza-zientziak) matematikako **klaseak hartuko** lirateke. Tfnoa: 943 79 23 77

◆ **Langaiko lan eskaintza**

Komertziala. Gasteizen dagoen enpresa. Erref. 14681/4

Bi injinieru industrial. Deba Garaia. Erref. 15227/2

Kalitatea kontrolatzeko teknikaria. Arabako lautada. Erref. 16344/3

Gasolina banatzailea. Gasteiz. Erref. 16463/6

CNC tornu operazioa. Durangoko inguruan. Erref. 16483/1

Automobilen mekanikaria. Urretxuko ETT. Erref. 16371/3



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu **943 79 86 21** telefonora edo **943 77 18 54** erantzungailura. Dohainik da.

◆ **Lan eskaintza publikoak**

Oñatiko Udala: Enplegu teknikaria.

Titulazioa: erdi mailakoa. Epea: 99/2/15. Oinarriak: Udal erregistroan.

Arrasateko Udala: Gazteria teknikaria.

Titulazioa: Unibertsitateko diplomatura. Euskarazko 3.HE. Epea: otsailaren 8tik 16ra.

DENETARIK

◆ Aretxabaletan taberna alokagai. Tfnoa: 943 79 01 47 (Jose).

◆ Donostia edo inguruetan pisu konpartitu batean bizi baldin bazara eta lekua libre baduzu deitu 943 79 06 75 telefono zenbakira (Saioa).

◆ Aretxabaletan logelak alokatzten dira sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu 943 79 05 26 telefono zenbakira.

◆ Bugno bizikleta bat salgai dago. Tfnoa: 943 77 00 95 (Jon)

ETXEBIZITZA

◆ Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 80 41.

LEHIAKETAK

◆ **“ARRASATE 98” lehiaketak.** AED Elkarteak eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin, Leintz Bailarako gaztetxo guztiek eta 17 urtetik gorako Deba Garaiko edozein pertsonak parte har dezaketen bi lehiaketa mota antolatu ditu:

- Literatur lehiaketa: ipuina, poesia eta bertso paperak.

Atal guztietan gaia librea da eta idazlanak hiru kopiatan aurkeztu behar dira.

- Lehiaketa ezberdinak: komikia, Leintz Ugarran bailaretako euskararen egindako magnetofoi grabaketak eta irratirerreportaiak.

Komikia lau eta sei orrialde bitartekoa izango da DIN-A 4 formatoan aurkeztua. Grabaketak eta irratirerreportaia 10-15 minutu tartekoak izango dira, gaia Arrasateri lotua egon beharko delarik. Grabaketak gure bailaretako euskalkian jaso beharko dira bi sail bereiztuko direlarik elkarrizketa eta kontakizuna.

Lanok aurkezteko epea otsailaren 26an bukatuko da. Informazio gehiago Arrasateko AED elkartean.

Herriko plazan
ARTANO
Girorik onena
Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

ITURGINTZA
J.J
Tfnoa: 943 79 07 34/79 31 87

CONSUM EROSKI
Orain arraindegia eta okindegiak, zatoz!
Mitarte kalea z/g 943 79 92 11
ARETXABALETA

Aratuste usaina



M. J. Armentia

Aratuste usaina somatzen da inguruotan. Mozorroak gertatuta ala azken ikutuak emateko daude? Gehientsuenok nahiko itxuratuta izango duzue, baina ziur nago batek baino gehiagok zapatu gaua domekako jantzia bukatzen pasatuko duela. Eta mozorroa pentsatu ez duenak, domeka goizean etxeko trapu zaharrak jantzi eta irtengo du kalera. Egun honetan denak balio du. Aurten mozorroa prestatu beharrik izango ez dutenak **Santa Ageda mutilak** dira, txuri-gorritz jantzi eta listo! Herritarrek eta Udalak gogor kritikatu dituzte. Ez da gutxiagorako! A ze gauza piloa hondatu dituzten, beno eta atera duten zarata? En fin... Aratuste domekan egingo dute azken dantza saioa, ea ba txukuna izaten den.

Azkenaldian berri onik jaso badugu, kirol mundutik izan da. A ze kirol zaletasuna dagoen gure herrian. **Errasti anaiek** Gipuzkoako eskuz binakako pilota txapelketa irabazi dute. Xakean preferente mailatik liga vascara igo dira xake taldekoak eta **Fran Miguelek**, gainera, Euskal Herriko Unibertsitateko xake txapelketa irabazi du. Korrikan, **Joseba Larrinaga** Portugalgo Algarve aldean izan da. Munduko kross txapelketa ospatu da bertan eta Joseba seigarrena izan dugu. Beste arlo batzuk eman ez dutena, kirolak eman du oraingo honetan.

Kirol berri hauek eta sortzen diren beste batzuk laster telebistan entzun eta ikusiko ditugu. Atxabalta telebista bihar hastekoa da eta. **Amagoia Lasagabaster** eta **Aritz Altube** jo ta ke ari dira programazioa gertatzen. A! Amagoia telebistako langile berria da. Bere aurpegia ikusiko duzue albistegietan. Urduri samar dago, baina ziur gaude oso ondo egingo duena. Aritz telebista ostean egongo den arren, honek ere lan haundia du muntaia eta grabaketa guztiak egiten. Hasiera gogorra izaten da beti baina animo bi langileei eta telebistako lantalde osoari.

Beno nik ere badaukat oraindik zereginik. Mozorroari azken ikututxoak egitea gelditzen zait. Aurten ezetz inork ezagutu.

Liburutegiko txokoa

Liburu berrien zerrenda:

Gazteak

- Animales geniales / Gloria Fuertes (6 urtetik aurrera)
- Txoko txiki txukuna / J. Ormazabal (8 urtetik aurrera)
- Marijane konta zan / Marijane Minaberry (10 urtetik aurrera)
- Jontxuren fragata / Asun Balzola (10 urtetik aurrera)
- Abereen etxaldea / George Orwell (12 urtetik aurrera)
- Alatraste Kapitaina / Arturo Perez-Reverte (12 urtetik aurrera)
- Eta orain zer, Nuria? / Glòria Llobet (12 urtetik aurrera)
- Manolito on the road / Elvira Lindo (12 urtetik aurrera)
- Super humor Mortadelo (3; 4; 6) / F. Ibañez
- Super humor Simpson (3; 4) Matt Groening

Helduak

- Koaderno gorria / Arantxa Urretabizkaia
- Urregilearen orduak / Pako Aristi
- Hija de la fortuna / Isabel Allende
- Paraíso / Toni Morrison
- El café de Qúshtumar / Naguib Mahfuz
- El príncipe errante / Jen Plaidy (Victoria Holt)
- El lápiz del carpintero / Manuel Rivas
- Las cinco llaves de lo desconocido / César Vidal
- Tierra de lobos / Nicholas Evans
- Mary Lavelle / Kate O'Brien
- El evangelio según Jesucristo / José Saramago

Joseba Lopez de Armentia

OTSAILA

14

domeka

ARATUSTE DOMEKA

Kalera mozorrotuta ateratzeko eguna. Jai giro polita egun guztian zehar.

16

martizena

ARATUSTE MARTIZENA

Arratsaldeko 3etan hasita gaueko txinoaren hiletarekin emango zaie amaiera aurtengo aratusteei.



Domekan mozorroz jantziko dira herriko kaleak

HITZALDIA KURTZEBARRI ESKOLAN

Guraso eskolak antolatuta, "Osasun ona izateko elikadura klabeak" izenburupean Alberto Iturbek, Donostiako Onkologiko-ko Nutrizio Zerbitzuko arduradunak hitzaldia emango du. Kurtzebarri eskolako liburutegian izango da arratsaldeko 6,15etan.

1950 eta 1951an jaiotakoek afaria egingo dute datorren otsailaren 27an Taberna Berri jatetxean. Izena emateko deitu 943 79 10 79 telefonora (Koldo).

18

eguna

19

egukotxa

KULTUR ERROTA

Kultur errota barruan, Mikel Urdangarin eta Iñaki Labaka bakarlariek eskeinitako emanaldiak izango dira udaletxe zaharrear gaueko 10,30etan.

21

domeka

ATXURBIRA IRTEERA

Zaraia M.T.k antolatuta Atxurbira egingo da domeka honetako irteera.

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkariaren **Topaguneko** Gazte Saileko batzordeak egun pasa eder bat antolatu dute Euskal Herriko gazte euskalzale guztientzat, Neguko Olinpiadak izenburupean. Honen helburua euskaraz eta honen normalkuntza beharraz sentsibilizatuta dauden gazteak elkar eza-gutu eta egun eder bat pasaz harremanak egitea da. Egundau pasa hau otsailaren 27an Usurbilen izango da eta izen ematea herriko euskara elkartearen egin beharko da otsailaren 15a baino lehen.

EZKUTU
TABERNA
Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 943 79 92 01

URBALTZ
TABERNA
Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta mortzilak
Durana, 9
Tfnoa: 943 79 19 79

Mobiliario
ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia,1 - Tfnoa: 943 79 08 07
ARETXABALETA

LEIBAR
arraindegia
Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 943 77 13 79
ARETXABALETA

IKASTARROAK

AISIALDIKO ZUZENDARI
IKASTAROA

Arrasateko Txatxilpurdi taldeak antolatuta aisialdiko zuzendari ikastaroa. Iraupena 100 ordu eta matrikulatzeko epea otsailak 26an bukatuko da. Apuntatzeko baldintzak 21 urte beteak eta begirale titulua izatea dira. Informazio gehiago 943 79 54 46 telefono zenbakira deituz.

Gogoratu pala eta eskupilota txapelketan apuntatzeko epea bihar, otsailak 12, bukatzen dela. Izen ematea kiroletxean egin daiteke, 943 79 64 61 telefono zenbakian.

GIMNASIA
TERAPEUTIKOA

Lordosis, cifosis, eskoliosis, lumbagia... erako patologia bat duten pertsonentzat zuzenduta dago. Gimnasia saio honetan parte hartu ahal izateko mediku txostena izan behar da eta urtean zehar partaide bakoitzaren mediku kontrolak egingo dira. Taldeko partaidetza mugatua izango da. Astearte eta ostegunetan emango da 10:15etatik 11:15ra. Prezioa abonatuentzat 2.600 pta.koa da eta 3.400 gainontzekoentzat.

Bihar, eguakotxa, hasiko da Atxabalta telebista

Bihar iluntzean gure artean izango dugu Atxabalta telebistako lehen emisioa.

Hemen albisteak izango ditugu lehenik Amagoia Lasagabasterren eskutik, 8etatik aurrera. Herriko gai nagusienez gain, eguraldiak ere bere lekua izango du bertan, eta jakina, datozen egune-

tarako agendaren berri ere eman- go da.

Albiste saioaren ondoren, "Atxabalta ezagutzen" programa barruan Aratz taldea izango dugu protagonista.

Badakizue, gure telebista ikusi nahi izanez gero, presta itzazue zuen telebistak 28. kanalean.

	ASTELEHENA	EGUAZTENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	JOLASEAN	AGENDA
20:30			ATXABALTA EZAGUTZEN Aratz taldea

Amagoia Lasagabasterrek zuzenduko du albisteen saioa

BEHARREZKO
TELEFONOAKAretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Arkarazon bizi arren, ia ordu gehienak Arrasaten pasatzen ditu Josune Letek. Hamalau urte egingo ditu aurki Arrasateko Orto-Lagun denda. Bertan makina bat bezereen bisita jasotzen du baina gehienak kaltea egindakoan joaten zaizkio. Berak, oster, prebentzioa landu nahi du horren aurretik.

• **Nolatan ortopedia denda bat Arrasaten?**

Orduan Arrasaten ez zegoen horrelako dendarik. Hasieran dendari moduan hasi nintzen, baina gero "Ortopedi tekniko" titulua ateratu behar izan nuen.

"Prebentzioa landu nahi nuke nire lanbidean"

- **Non egin zenituen ikasketak?**
Bartzelonan.
- **Zein motako bezeroak dituzu?**
Kaltea gertatu ostean etortzen dira gehienak, eta nik hori gertatu aurretik, prebentzioa, landu nahi dut.
- **Non bizi zara?**
Arkarazon.
- **Aretxabaleta ala Arrasate gurago?**
Arrasate, hamabost urte hemen egin ditut eta lagunak ere hemengoak dauzkat.
- **Mozorrotuko zara aratustee-tan?**
Ez, ez dut ohiturarik.
- **Nork laguntzen dizu denda?**
Anaiak, Gorkak.
- **San Valentín eguna ospatu behar duzu?**
Ez.
- **Afizioak?**
Lorategia zaintzea, lasai egotea...
- **Zer du ona baserriak eta txarra?**
Baserriaren alde positiboak esaten egun guztia pasatuko nuke, libertatea, lasaitasuna, familia guztia elkartuta egotea...
- **Zer gomendio emango zenuke bizkarreko minarentzat?**
Prebentzioa, lan batzutan faja

erabiltzea derrigorrezkoa da ...

- **Bizi bakarrik ala beste batekin?**
Familia osoaz.
- **Birtute bat.**
Autoestima handia eukitzea.
- **Euskara batua ala etxekoa?**
Etxekoa.
- **Depilatu argizariaz ala kremaz?**
Argizariaz.
- **Non hartuko zenuke parte, kirol elkarte, elkarte sozial ala politikoa?**
Politikoa, politikari ona naiz.
- **Biziko zinake kotxe barik?**
Gaur egun beharrezkoa daukat baserrira igotzeko. Lehen makina bat bider etxera oinez igo eta jeitsitakoa naiz.
- **Zein lan egiten duzu baserrian?**
Behar denean laguntzen dut, normalean nire anaiak laguntzeko esaten didanean.
- **Noiz bota zenuen azkenengo juerga?**
Gabon zaharretan, baina normalean ez ditut asko botatzen.
- **Noiz elkartzen zara lagunekin?**
Zapatuetan bazkaltzeko.

KOMIKIA

BALTxAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe



Oraingoan
bai!

Oraindik denboraz zaude
Udal Euskaltegia izena
emateko.

ANIMA ZAITEZ!

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa, 2 - 4
ARETXABALETA
Tfnoa: 943 79 21 68

Fernando Enparantza
ESKORIATZA

*Abenduan milaka eguzki...
... otsailean milaka ordu*

**Lanordu bat
akordioaren alde**

Otsailean ere, eutsi egizu zure konpromisoari



euskarari



centro hogar MUEBLES



a, eme...interiores

sukaldeak



Sofa
leku

GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE
Tel. 943 79 15 03 / 943 77 14 92 • Faxe 943 79 14 89